**Gaia**: 2007ko balorazioa eta proposamen berriak
**Data**: 07/12/12 **Lekua:** Goieki, Ordizia **Iraupena**: 16.00 – 18.00
**Parte-hartzaileak**:

- Jose Manuel Otegi (Caritas)
- Juan Urteaga (Langai)
- Amagoia Muruamendiaraz (Geriatra)
- Miren Guembe (Gurutze Gorria)
- Maribi Lopez ( Gurutze Gorria)
- Ramon Telleria (Gueske)
- Miguel Calvillo (Nagusilan)
- Asun Jauregi (Gureak ordizia)
- Belen Balerdi (Kimetz)
- Malu Vallés (Beasaingo Udala)
- Antton Irizar (Idiazabalgo Udala)
- Haritz Maiz (Ormaiztegiko udala)
- Lourdes Garmendia (Lazkaoko Udala)
- Iker Galparsoro (Goieki)
- Ainara Ormaetxea ( Goieki )
- Begoña Puras ( Goieki)
- Laida Plazaola (Goieki)

- Arlo sozialean aurrera eramandako ekintzak azaldu.
- Ekintza berrien proposamenak landu.
- Taldean landutakoa bateratu.

**<u>2007an aurrera eramandako ekintzak :</u>**

***1. Etorkinei arreta eskaintzeko plana.***

- Goierriko egoera migratorioaren inguruko azterketa amaitu eta aurkeztu zen Urriaren 25ean.
- Goierri kolore aste kulturala antolatu da Goierri eskualdeko herri desberdinetan. Ekintza hauetako parte hartzea oso positiboa izan da, bai bertako herritarrena baita atzerritarrena ere.
- Harrera sarea antolatzen ari da. Elkarte eta entitate desberdinekin bilerak egin dira. Adibide gisa esan, abenduaren 14an, adin txikikoei buruzko lan taldearen bilera egin zen. Gai honen inguruan, lan talde desberdinak antolatzeko nahia azaldu da eta koordinazio sare bat antolatzea etorkinekin maila zuzenean edo eta zeiharrean lan bateratu bat egiteko.

*Hurrengo urteetan:*

- Goierri kolore. Kulturen arteko topaketa antolatu.
- Harrera sarea sendotu
- Inmigrazio Planerako ekintzak burutu.

***2. Gizartearen parte – hartzea bultzatu: Herritartasun aktiboa.***

- Bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren (BOZI-ALTV) garapena; 72 pertsonek egin dute ikastaroa.
- Programaren difusioa. ( eskualdeko gizarte eta prestakuntza agenteekin kontaktuak egin).
- Bitartekaritza zerbitzua: eskualdeko prestakuntza landu.
- Web orrialdea mantendu. www.bozi-altv.net/goierri

*Hurrengo urteetan*.

- Kolektibo berrien kaptazioa eta talde berriak osatu BOZI – ALTV programarako.
- Gizarteko agente desberdinekin kontaktuak zabaldu.
- Bitartekaritza zerbitzua indartu.

***3. Eskualdeko gizarte – baliabide gida.***

- " Goierri zure eskura ! " Poltsiko liburuxka egin da.

Hizkuntza hauetan argitaratu da: Euskara, erdara, ingelesa, frantsesa, errumaniera eta arabiera.

*Hurrengo urteetan.*

Liburuxkaren banaketa. Oraindik Arabiera hizkuntzaren itzulpena egitea falta da.

***4. Eskualdeko gizarte kontseilu bat sortu.***

- 2007 urtean zehar bi bider elkartu gara. Ekainaren 20ean eta abenduaren 12an.

*Hurrengo urteetan.*

- Urtean zehar bi bilera egiten jarraitu gutxienez.

***Ekintza berrien Proposamena landu.***

3 taldetan bildu eta proposamen berriak landu ziren edo eta ekintza planean azaltzen zirenak aztertu. Ondoren, lan talde bakoitzak beraien proposamena talde guztiari azaldu zion. Talde bakoitzaren lehentasunak azaldu ondoren parte

hartzaile bakoitzak kolore gorriarekin garrantzitsuena ( 2 puntu balio ditu) iruditzen zaion ekintza markatu zuen eta kolore beltzarekin (1 puntu balio du) garrantzitsuena izan daitekeen ekintza. Honela, hauek dira landutako gaiak, eta ondoan izan duten puntuazioa azaltzen da.

**1go Taldea.**

1.1. Gizarte kontseilua. Puntuazioa: 13 G + **2 B = 28**
Gizarte kontseilua, dinamizatu, taldean dauden agente guztien iritziak jaso eta bileretan lantzen diren gaiak zein diren esplikatu. Bileretan parte hartzeko aukera izan ez duten pertsonen ekarpenak ere jasotzen joan.

1.2. Adineko Pertsonak. Puntuazioa: **5**
Koordinazio sozio sanitarioa landu. Bolondres mugimendua landu.
Pertsona egokiak bilatu informazioa eman eta jasotzeko.

1.3. Emakumea. 1G + **4 = 6**
Sentsibilizazio kanpaina. ( Gizarte kontzientzia landu).
Tratu txarren kasutan, emakumeari "akonpainamendua" egingo dion pertsona.

**2.go Taldea**

2.1. Foro kulturala sortu. **4**
2.2. Ikerketa egin eskualdeko behar eta eskaintza formatiboaren inguruan. 1 G + **1 = 3**

**3go Taldea.**

3.1. etxebizitzak egokitu larrialdietarako kasuetarako, eskualde mailan. **5**
3.2. Udaletxeek informazioa bidali etxe hutsen jabeei eta "ETXEBIDE"ren eskuetan jartzeko aholkatu. **0**
3.3. Etxe zaharren egokitzea egin / aholkularitza zerbitzu bat sortu/ dauden esperientziak aztertu. **8**

Bilera amaieran azaltzen da, parte hartu ez duten beste pertsona guztiekin kontaktatuko dela gaiari buruz hitz egiteko eta ekarpen gehiago jasotzeko.